



Arartekoaren 2019R-1285-18 Ebazpena, 2019ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio legeriara egokitu ditzala azokak eta azoka txikiak egiteko baimena eskuratzeko prozedura eta indarrean dagoen espazio publikoari buruzko ordenantza.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, eta horren bidez adierazi zuen ez zegoela ados Bilboko Udalak bidali zion komunikazioarekin. Hain zuzen ere, urtean zehar udalerrian egiten diren azoketan espazio publikoa okupatzeko eta ekoizleak hautatzeko baimenak zituen hizpide komunikazio horrek.

Kexagileak azaldu du, ekoizle den aldetik, hainbat aldiz eskatu diola udalari udalerrian egiten diren nekazaritza-azokak arautzen dituzten oinarriei eta deialdiei buruzko dokumentazioa. 2017an zenbait eskabide aurkeztu zituen, eta, horiez gain, 2018ko apirilaren 20an, bere eskaerei erantzun arrazoitua emateko eskatu zuen. Horren ondoren, berriz ere egin zuen eskaera bera, 2018ko ekainaren 20an beste idazki bat aurkeztuta. Idazki horien bitartez, bere ustez azoka berezietan salmenta ibiltariko jarduerak egiteko espazio publikoaren esleipena arautzen duen lege-esparruaren berri eman zuen interesdunak. Izan ere, bere iritziz, deialdirik ez egiteak eta prozeduraren oinarriak eta ekoizleak hautatzeko irizpideak ez zehazteak berdintasun- eta gardentasun-printzipioak urratzen ditu, eta indarrean dagoen araudiaren aurkakoa da.

Zehazki, interesdunak aipatu zuen honako araudi hau urratu zela:

- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren (Toki-Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onesten duena) 77. eta 78.2. artikulua.
- Otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuaren (Salmenta Ibiltaria edo Ez-sedentarioa arautzen duena) 4. artikulua.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Legearen (Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa) 92.1. artikulua.

Bilboko Udalaren hainbat erantzun jaso zituen interesdunak. Zehazki, 2018ko ekainaren 27an jaso zuen azkena, eta, horren bidez, Espazio Publikoaren eta Barrutien Erabilerarako Zuzendariordetzak jakinarazi zion bere sailari zegokiola espazio publikoaren erabilera kudeatzea, eta, hortaz, sail horrek erabilera orekatua izan zedila zaintzen zuela, eta bermatzen zuela segurtasun-, osasungarritasun- eta abar-baldintzak betetzen zirela, baina ez zuela parte hartzen ekitaldien garapenaren barne-antolaketan, sustatzaileei zegokielako hori. Jakinarazpen horren bidez, adierazi zioten, nekazaritza-azoken kasuan, hitzarmen bat sinatu zutela Berritzen Elkartek eta BBK Gizarte Ekintzak, azoka horiek Bilbon antolatzeke eta egiteke.



2. Arartekoak kexa eta harekin batera interesdunak aurkeztutako dokumentazioa aztertu zituen, eta, horren ondoren, 2018ko uztailaren 26an, informazioa eskatu zion Bilboko Udalari. Era berean, udalaren jarduketari buruzko lehengo gogoeta hauek helarazi zizkion, haiek egiaztatze aldera:

“Lehenik eta behin, formaren ikuspegitik, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio prozedura erkideari buruzkoak, 88. Artikuluan ebazpenen edukietarako xedatutakoa (organo eskudunak egindako ebazpenak, errekurtsioak, lege arrazoiak eta ordenantza interpretatzeko funtzioa nahiz aginpidea duenaren teknikoak, etab.) kontuan hartuta, erakunde honen ustez interesdunaren eskeen aurrean erantzuteko komunikazioek bertan xedatutakoa ez dute betetzen.

Gaiaren mamiari dagokionez, feria bereziak egin eta espazio publikoak indarreko lege prozedurarekin bat adjudikatzearen inguruan udalak Arartekoaren iritzia ezagutzen du, kexagileak erakunde honek emandako gomendioak eta arrazoi sakonekin bestelako dokumentuak iritsarazi baitizkio, beraz, aipatutzat jotzen dira.

Laburbilduz, erakunde honen ustez, udalak ezin du erakunde pribatuaren esku utzi feria antolatzea eta produktuen salmenta ibiltarirako espazio publikoa nola eta zer baldintzatan hartuko den zehazteko ahalmena izatea. Aipatzen den sektoreko araudiarekin bat, nahitaez postu desberdinen baimenak norgehiagoka publikoaren araubidean edo zozketaren bitartez eman behar dira. Ildo horri eutsiz, jarduteko legezko baldintza guztiak betetzen dituzten interesdun guztiei berdintasuna bermatu behar zaie.

Udalak zuzenean edo erakunde baten bidez egin dezake. Bigarrenaren kasuan, izapide aplikagarriaren bidez ekitaldia kudeatzea eskatuko dio.

Udalaren esanetan, ekitaldia antolatzeko bi erakunde pribaturen artean hitzarmena egin da, baina ekitaldiak gauzatzeko espazio publikoa lagatzea ahalbidetzen duen erlazio esparru juridikoa ezezaguna da.

Nolanahi ere, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Lege Araubideari buruzkoak, 47. Artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat, hitzarmenek ezin dute helburu modura kontratuen berezko prestazioak izan eta, ondorioz, jarduerak kontratuaren izaera ez duela zehazteko orduan, administrazio publikoaren jarduna oinarritzeko aginpidea arrazoitu beharko da, justifikazio txostena barne.

Hori kontuan hartuta, nahiz eta hasieran jabari publikoaren ondasunen baimenak eta emakidak kontratuen arautegitik kanpo gelditu (9/2017 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzkoa; 9.1. artikulua), administrazio publikoari buruzko ondarearen sektoreko araudiak kontratazio arauetara bidaltzen du bere

artikuluetan beraziaz xedatzen diren alderdietarako. Ildo beretik, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua) kontratazioari buruzko arautegia aipatzen du (adibidez 78.2. artikulua).

Bestalde, espazio publikoaren udal ordenantzarekin bat, feria erakunderen batekin hitzarmena eginez antolatu arren, honakoa bermatu beharko da: saltzaileak publizitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioen arabera hautatzen direla eta aldez aurretik jakinarazi beharko du erakunde antolatzaileak beteko dituela.

Halakoetan, hartutako konpromisoen inguruan hitzarmenak jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak izango ditu, beraz, udalak bermatu beharko du lehen aipatu dugun lege esparrua betetzen dela, postuen adjudikazio prozedura bermatzeko izapidetu den espediente eskura jartzea barne.

Horrengatik guztiarengatik, zure laguntza eskatzen dut eta, ondorioz, 30 egunetan hurrengo dokumentazioaz gain, planteatuko kexaren eta aldez aurretiko gogoetak balioztatzearen berri ematea eskatzen dizut:

- *Nekazaritza azokak, Santo Tomasekoa barne, egiteko sinatutako hitzarmena (web orriko hitzarmenen atalean ez da aurkitu).*
- *Hitzarmenaren legezkotasunari buruzko txosten juridikoa.*
- *Ekoizle partaideak hautatzean norgehiagoka eta gainerako baldintzak betetzeari buruzko jarraipen txostena.*
- *Egokitzat jotzen den beste edozein informazio.”*

3. Bilboko Udalak 2018ko irailaren 11n jasotako jakinarazpenaren bidez erantzun zion gure informazio-eskaerari. Horrekin batera, Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak egindako txostena aurkeztu zuen, eta agiri horrek honako hau zioen, hitzez hitz:

“En contestación a su solicitud de información sobre la queja presentada por Don (...) sobre procedimiento de autorización de ferias agrícolas, expediente 2018-043411 le informo lo siguiente:

La celebración de eventos que conllevan venta ambulante se autoriza por este Ayuntamiento en los términos que se establecen en el Título VI de la Ordenanza Municipal de Espacio Público.

En tal sentido, en el caso de las Ferias, Mercados y eventos ocasionales, promovidas por asociaciones, o Entidades sin ánimos de lucro, es decir: no promovidas por el propio ayuntamiento, se aprueba la celebración del evento, y se autoriza la ocupación del Espacio Público mediante la correspondiente autorización administrativa, en la que se recogen las condiciones de ocupación del Espacio Público.



Por ello, la entidad organizadora correspondiente será responsable del cumplimiento de la normativa sectorial que resulte aplicable en función de los concretos artículos que sean objeto de venta, del pago de los derechos municipales correspondientes, del depósito de las garantías que en cada caso se exijan, de la suscripción de las correspondientes pólizas de responsabilidad civil y de la identificación individual de quienes vayan a participar en el mismo.

Los Servicios Técnicos del área, se han puesto en contacto con el reclamante para identificar los distintos aspectos de la queja formulada, darle vista de los expedientes administrativos y en definitiva dar respuesta a las cuestiones planteadas en la Queja formulada.”

4. Transkribatutako erantzuna ikusita, Arartekoak berriro eskatu zion informazioa Bilboko Udalari, uste baitzuen jasotako komunikazioak, Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak izenpetuak, ez ziela erantzunik ematen erakunde honek informazio-eskaeran mahaigaineratutako gaiei; izan ere, udalari berriaz eskatu genion kontu horiei buruzko balorazioa egin zezala, erakunde honen iritziz kexaren xedeari aplikatzekoa zen arau-esparrua oinarri hartuta. Gainera, eskatutako dokumentazioa ere ez zen aurkeztu, ezta gaia aztertzeko balio zezakeen bestelako dokumenturik ere.

Bigarren informazio-eskaera horretan azpimarratu zen, halaber, azokak antolatzeko baimena beste harreman juridiko baten bidez emanaz gero (administrazio-baimena, kontratua, ekitaldiak antolatzeko eskaerak, eta abar), kasuan-kasuko baimenak oinarri zuen dokumentazioa aurkeztu behar zela, justifikazio juridikoa barne.

5. 2018ko urriaren 31n jasotako idazkiaren bidez erantzun zuen Bilboko Udalak. Zehazki, honako hau jakinarazi zuen Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak:

“El Ayuntamiento no es promotor de "Ferias Agrícolas" En tal sentido, en el caso de las Ferias, y eventos ocasionales, promovidas por asociaciones, o Entidades sin ánimos de lucro, es decir, no promovidas por el propio ayuntamiento, se aprueba la celebración del evento, y se autorizan mediante la correspondiente autorización administrativa, en la que se recogen las condiciones de ocupación del Espacio Público.

En tal sentido se gestiona la utilización del Espacio Público conciliando los intereses de los vecinos, ciudadanía, asociaciones y teniendo en cuenta otros criterios como la dinamización de la Ciudad. Asimismo desde la autorización se imponen las condiciones relativas a la salvaguarda de la seguridad de las instalaciones y su control, si existe venta de alimentos y bebidas se realiza el control sanitario, se imponen las condiciones de horario





y control de ruido, en definitiva las autorizaciones recogen las condiciones de la ocupación del espacio generales y específicas para el evento de que se trate. Cuando se trata de ferias agrícolas además se solicita al promotor del evento la aportación de la relación de expositores que participan en dicha feria.

Le adjunto las autorizaciones de ocupación del espacio público para Eventos con Feria Agrícola celebrados en 2017 y 2018 (hasta la fecha del presente informe).

Como puede apreciarse la celebración de los distintos eventos es de 1 único día. Se autorizan a las siguientes asociaciones sin ánimo de lucro:

ONKI-XIN ELKARTEA; AKUILOA KULTUR ELKARTEA; DEUSTUKO KULTUR ELKARTEA; ASOCIACIÓN DE VECINOS ALDATZ BIDE; ASOCIACIÓN CULTURAL GOI ZUBI; BBK FUNDACIÓN BANCARIA; ASOCIACIÓN DE VECINOS DE SANTUTXU

En todos los supuestos se trata de asociaciones o entidades sin ánimo de lucro para la celebración del evento en un solo día, y se autorizan mediante la correspondiente resolución administrativa. La autorización administrativa más relevante del Mercado de Santo Tomás ha llegado a su 70 edición y se realiza mediante autorización administrativa no a través de Convenio, si bien la Fundación si cuenta con un convenio suscrito con las asociaciones de productores.

Por último entendemos que no procede imponer a estas Entidades y asociaciones sin ánimo de lucro la tramitación de procedimientos administrativos que entendemos si procederían en el supuesto de promoción municipal de la ocupación privativa del espacio público. No obstante, si desde esa institución se formulan recomendaciones procederíamos a estudiar las mismas."

6. Horren ondoren, Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Sailaren (Espazio Publikoaren Erabilerarako Zuzendariorde) jakinarazpena, 2018ko azaroaren 10ean Epaitegiko plazan egingo zen San Martin Azokan txosna bat jartzeko baimena emateko eskaera ezetsi zuena, bidali zion interesdunak Arartekoari.

Jakinarazpen horretan ezartzen zen udala ez zela "nekazaritza-azoken" sustatzaile, ez eta zehazki San Martin nekazaritza-azokaren sustatzaile ere. Azoka hori Zabalkuntza Kultur Taldeak sustatu zuen, eta 2018ko azaroaren 5ean eman zitzaion ekitaldia antolatze baimena. Era berean, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zion, elkarteek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatutako noizbehinkako azoken eta ekitaldien kasuan, udalari dagokiola azokaren sustatzaileak eskatutako espazio publikoa okupatzeko eskaera —ez,





ordea, jar litezkeen postuen banako eskaerak— onestea eta, hala badagokio, baimentzea.

Erantzunean adierazi zen, halaber, azoka horiek egiteko baimena dagokion administrazio-baimenaren bidez ematen dela, eta han jasotzen direla espazio publikoa okupatzeko baldintzak. Beraz, baimena ematearekin batera, kasuan kasuko ekitaldiak espazioa okupatzeko baldintza orokorrak eta espezifikokoak ezartzen zaizkio sustatzaileari: instalazioen segurtasuna eta kontrola — elikagaiak eta edariak saltzen badira, osasun-kontrola egiten da; ordutegiaren eta zarataren kontrolaren baldintzak ezartzen dira, eta abar—. Nekazaritza-azoketan, gainera, parte hartuko duten erakusketarien zerrenda aurkezteko eskatzen zaio ekitaldiaren sustatzaileari.

Amaitzeko, komunikazioan honako hau adierazi da: *“Es competencia del Ayuntamiento la gestión de la utilización del espacio público, lo que requiere conciliar los intereses de todos los vecinos, ciudadanos, comerciantes y asociaciones: así como aplicar criterios de dinamización de la Ciudad.”*

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, kexan azaldu diren formari lotutako kontuei dagokienez, Bilboko Udalari gogorarazi behar zaio gai horri lotuta egindako eskaeren harira interesdunak jaso zituen jakinarazpenetan ez zirela ageri administrazio-egintza orok izan beharreko funtsezko elementuak —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 88. artikulua—. Artikulu horren hiru garren apartatuak hauxe dio:

“Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurtsio aurkeztu daitezkeen haren aurka, zer administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.”

Administrazio-prozeduraren baldintzak bete beharrak bermatzen du herritarren eskubideak babesten direla administrazioarekin dituzten harremanetan, administrazioak bere jarduerari ekin eta zuzenean eragiten duenean herritarren esfera juridikoan. Kasu honetan, eskatutako azokan parte hartzeko eskaera ukatu egin zion udalak, bere erabakia arrazoitu gabe behar bezalako oinarri juridikoak baliatuta. Arrazoiketa labur bat ere ez zuen egin, interesdunak azokan parte hartzeko eskaera egiteko orduan argudio ugari eman arren. Bestalde, interesdunak jaso zituen jakinarazpenetan ez zen adierazi zer errekurtsio aurkez zitezkeen, ez eta horiek zein organo administratibo edo judizialean jarri behar zituen ere.

2. Ikuspegi materialetik, aipatutako aurrekarien arabera, noizbehinkako azoketan espazio publikoa salmenta ibiltariko postuekin okupatzeari buruzkoa da kexa,





eta Bilboko Udala udalerriko espazio publiko horien esleipena nola kudeatzen ari den aztertzen du.

Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantzaren —2010eko irailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen behin betiko, eta 186. zenbakiko BOEn, 2010eko irailaren 27koan, argitaratu zen— VI. tituluak salmenta ibiltaria du hizpide. Noizbehinkako azokak titulu horren III. kapituluak arautzen ditu.

Ordenantzan noizbehinkako hiru azoka txiki mota bereizten dira:

- a. Hitzarmen bidez antolatutakoak (San Tomas, Liburu Azoka, Artisautza Azoka, azoka txikiak eta azoka bereziak).
- b. Lehiaketa-prozeduren bidez antolatutako noizbehinkako azokak (Gabonetakoa, Aste Nagusikoa, jai erlijiosoetako salmenta ibiltaria).
- c. Noizbehinkako beste azoka batzuk (barrutietako/auzoetako jaiak, baratzezaintzako, artisautzako eta bestelako azoka txikiak).

Kexak aztergai duen kasua non kokatu behar den zehaztea da gaien sakontzeko lehen zailtasuna. Izan ere, azoka horiek guztiak noizbehinkakoak dira eta kasu gehienetan egun bakar batean egiten dira, baina badirudi udalak desberdin arautzen dituela, azoka-motaren arabera, baina, batez ere, azoka nork sustatzen duen kontuan hartuta. Are gehiago, Arartekoari eta interesdunari emandako erantzunen arabera nolabaiteko nahasmena badago ere, ondoriozta daiteke ez dakigula oso ondo zer azoka sar litezkeen hitzarmen bidez antolatutakoen atalean; izan ere, garrantzitsuentzat jotzen dena, San Tomas Azoka, administrazio-baimen bidez antolatzen da, nahiz eta ordenantzan hitzarmen bidez antolatutako azoken artean ageri. Ekitaldi hori antolatzeko baimena duen erakundeak ekoizle-elkarteekin hitzarmen bat duenez, ezin da a) apartatuan sartu, baimena eman zaiona ez beste hirugarren bat delako sustatzailea.

Beraz, jo liteke, kexagilea nekazaritza-ekoizle den aldetik, pertsona horrek nekazaritza-azoketan parte hartzeko egin dituen eskaerak edo agertu duen interesa hiru ataletako edozeinetan koka litezkeela, jarraian aztertuko dugun bezala.

Ordenantzaren 76., 77. eta 78. artikuluek arautzen dituzte hitzarmen bidezko azoka izendunak, eta, hemen interesatzen zaigunerako, bakarrik ezartzen da erakunde antolatzailearekin, sektorea ordezkatzeko duen elkartearekin edo dagokion artisau-elkartearekin hitzarmena eginda antolatuko dela azoka. Edonola ere, Arartekoak salmenta ibiltarirako —noizbehinkakoa bada ere— espazio publikoaren esleipena hitzarmen bidez egiteari buruzko informazioa eskatu zuen, zehazki. Aitzitik, ez du jaso mota horretako hitzarmenak daudela frogatzen duen dokumentaziorik, ezta legezko jatorria dutela egiaztatzeko justifikazio juridikorik ere.



Nolanahi ere, Arartekoaren iritziz, hitzarmenek ez dute oinarri juridikorik, eta, horri dagokionez, jakinarazitzat jotzen dugu bigarren aurrekarian aipatutako erregulazioa. Gainera, hitzarmen bidezko mota horretako azoketarako ere, honako hau eskatzen da ordenantzaren: *“Saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du.”* Kontu hori aipatu dugu, eta aurrerago aztertuko dugu sakonago.

Azkenik, aipatutako a) apartatuan azoka txikiei eta azoka bereziei buruzko laugarren kasu generiko bat jaso da. Ordenantzaren 79. artikulua honako hau xedatzen du:

“Azoka eta merkatu txiki bereziak hauexek dira: hiribilduan, normalean herritarrentzat doan egiten diren jolas-izaerako ikuskizunei eta jardueri loturik, antolatzaile pribatu batek sustatzen dituen merkataritzako esparruak edo guneak. Azoka eta merkatu txikiak salbuespenez baimenduko dira; eta baimena emateko zorrotz begiratuko dira muntatzearen kalitatea, eta eskaintzen diren jarduerak, atrakzioak eta alboetako ikuskizunak. Eskabidean merkataritzako ekitaldiari buruzko xehetasun guztiak adierazkiko dira; eta ondo bermatuko da, saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko direla, eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko duela aurrez.”

B) apartatuari dagokionez, jasotako hiru kasuak lehiari lotuta daude, erregulazioan behintzat, eta, beraz, lehen batean, ez dago inolako eragozpenik eduki horri dagokionez.

Azkenik, c) apartatuak, noizbehinkako beste azoka batzuei buruzkoak, eta 80. eta 81. artikuluek, Gabonetako zein Aste Nagusiko azoka txikiei buruzkoak, honako hau ezartzen dute: *“Baimenak emateko, jendaurreko lehia-prozedurari jarraituko zaio; eta zozketa, lehiaketa edo enkante bidez ebatziko dira, dagokion deialdi publikoan zehazten denaren arabera”*. Bestalde, apartatu horretan jasotako hirugarren kasua jai erlijiosoei buruzkoa da (82. artikulua) eta, hori dela eta, honako hau adierazten da: *“Gune fisiko aski baldin badago eskuragarri, baimenak zuzenean emango dira; bestela, egokiagotzat jotzen den lehia-prozedurari jarraituko zaio.”*

3. Noizbehinkako salmenta ibiltariaren arloko udal-erregulazioa nahitaez sartu behar da kexak hizpide duen gaiari aplikatzekoak diren sektore-araudian eta ondare publikoari buruzkoan.

Horiek horrela, kexagileak udalean izapidetutako eskaeretan aipatu zuen bezala, lehenik eta behin otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretua, Salmenta Ibiltaria edo Ez-sedentarioa arautzen duena, aplikatu behar da. 1.1. artikulua salmenta ibiltari edo ez-sedentariotzat hartzen du **merkatariek** merkataritza-

establezimendu iraunkor batetik kanpo egiten dutena, kontuan izan gabe salmenta zer maiztasunekin eta non egiten den. Bestalde, artikuluko beraren 2. apartatuak zehazten du salmenta ibiltaria edo ez-sedentarioa hainbat modalitatetan egin ahalko dela, eta, zehazki, noizbehinkako edo aldizkako azoketan. Beraz, Bilboko Udalak ezin dio erregulazio horri ihes egin. Izan ere, haren ordenantzak erregulatzen dituen noizbehinkako azoka eta azoka txikiak sektoreko araudi horren aplikazio-eremuan sartzen dira; azpimarratu beharreko bigarren gai garrantzitsua da merkatari batek saltoki batetik kanpo egindakoa dela salmenta ibiltaria.

Bigarrenik, baimenaren araubideari dagokionez, Errege Dekretuaren 2.2. artikuluko honako hau xedatzen du:

“Para cada emplazamiento concreto y por cada una de las modalidades de venta ambulante o no sedentaria que el comerciante se proponga ejercer, deberá solicitar una autorización, que será otorgada por el ayuntamiento respectivo.”

Ondorioz, ezinezkoa da azoka jakin batean jardun nahi duen merkatari eta modalitate bakoitzak behar dituen baimen zehatzak erakunde pribatu batek ematea, eta erakunde horren esku uztea espazio publikoa esleitzeko ahalmena. Udalari bidalitako hasierako informazio-eskaeran aurreratu zenez, noizbehinkako azoketan produktuak saltze aldera espazio publikoa nola eta zer baldintzatan okupatuko den ezartzeko ahalmena ezin da erakunde pribatu baten esku utzi. Beste era batera esanda, noizbehinkako azoketan produktuak saltze aldera espazio publikoa okupatzeko baimena ezin zaie eman merkatariak ez diren erakundeei.

Azoka bat antolatzea eta salmenta ibiltarirako espazio publikoa okupatzea bi jarduera desberdin dira. Arartekoak Ortuellako Udalari zuzendutako [2017ko martxoaren 20ko 2017R-820-16 Ebazpenean](#) (nekazaritzako elikagaien azoka batean espazio publikoa esleitzeari buruzkoa) gomendatu zuenez, ezin zaio administrazio-zuzenbideari ihes egin, jabari publikoa erabiltzeko administrazio-baimenez ari garelako. Hala ere, partaidetza-eskaerak kudeatzen dituen erakunde bati esleiei dakioke ekitaldia antola dezan, deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzekin bat. Hori hala gerta dadin, udalak baimena eman behar du, eta, horretarako, aldeztu aurretik, postuak esleitzeko prozedura legeriaren arabera egingo dela bermatzen duen agiria aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, edozein interesdunen esku jarriko da izapidetutako espedientea.

Bestalde, errege-dekretuaren 3. artikuluko baimenaren ezaugarriak arautzen ditu. Zenbait zehaztapen jasotzen ditu artikuluko horrek, besteak beste baimenean gutxienez zehaztu beharrekoak direla baliozkotasun-epaia, titularraren identifikazio-datuak, non egin daitekeen jarduera, zer egun eta ordutan egin daitekeen eta zer produktu sal daitezkeen (3. apartatua).

Azkenik, errege-dekretuaren 4. artikulua hautaketa-prozedurari buruzkoa da, eta honako hau zehazten du:

"1. El procedimiento para el otorgamiento de la autorización para el ejercicio de la venta ambulante o no sedentaria y para la cobertura de las vacantes será determinado por cada ayuntamiento, respetando, en todo caso, el régimen de concurrencia competitiva, así como las previsiones contenidas en los artículos 86 y siguientes de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como del capítulo II de la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicio y su ejercicio.

2. El procedimiento será público y su tramitación deberá desarrollarse conforme a criterios claros, sencillos, objetivos y predecibles. En la resolución del procedimiento se fijarán los requisitos de la autorización, que habrán de ser necesarios, proporcionales y no discriminatorios."

Bigarren atalean aztertu denez, udal-ordenantzan oro har xedatzen da publizitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioak bermatuz egingo dela saltzaileen hautaketa. Aitzitik, ez da adierazten jai erlijiosoen kasuan printzipio horiek bermatuko direnik. Aurkeztu diren 2017ko eta 2018ko baimenei erreparatuta, udalaren ustez erregulazio hori nola betetzen den aztertuko dugu hurrengo atalean.

Bestalde, 17/2009 Legearen 10. artikuluan, errege-dekretuaren 4. artikuluan aipatutakoan, "**Debekatutako baldintzak**" jaso dira. Bidezkoa da xedapen hori aipatzea, haren edukia kontuan har dadin; izan ere, saltzaileak norgehiagokaren bidez hautatzen direnean, ohikoa izaten da han ezarritakoa ez betetzea. Besteak beste hauek dira debekatutako baldintzak:

"En ningún caso se supeditará el acceso a una actividad de servicios en España o su ejercicio al cumplimiento de lo siguiente:

a) Requisitos discriminatorios basados directa o indirectamente en la nacionalidad, incluido que el establecimiento se encuentre o no en el territorio de la autoridad competente, o el domicilio social; y en particular: requisito de nacionalidad o de residencia para el prestador, su personal, los partícipes en el capital social o los miembros de los órganos de gestión y supervisión.

.../...

e) Requisitos de naturaleza económica que supediten la concesión de la autorización a la prueba de la existencia de una necesidad económica o de una demanda en el mercado, a que se evalúen los efectos económicos, posibles o reales, de la actividad o a que se haga una apreciación de si la actividad se ajusta a los objetivos de programación económica fijados por la autoridad competente o a que se comercialicen productos o servicios de un tipo o procedencia determinada. Las razones imperiosas de interés general que se invoquen no podrán encubrir requisitos de planificación económica.

.../...

h) Obligación de haber estado inscrito con carácter previo durante un período determinado en los registros de prestadores existentes en el territorio español o de haber ejercido previamente la actividad durante un período determinado en dicho territorio."

Azkenik, lege-esparrua osatzeko, ondare publikoaren arloko erregulazioa aipatu beharra dago. Zehazki, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa. Udalak arau hori aipatu du Arartekoari aurkeztu dizkion hainbat azokatarako ebazpen-proposamenetan. Beraz, emandako baimenen oinarri gisa aipatu nahi ditugu lege horren 6., 84., 85.2., 86.2. eta 92.1. artikulua. Legearen 6. artikulua herri-administrazioek beren herri-jabariko ondasunen kudeaketan eta administrazioan bete behar dituzten printzipioei buruzkoa da. Kexaren xedeari dagokionez, honako printzipio hauek nabarmendu daitezke:

- c) Erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari benetan aplikatzea, salbuespen bakarrak izanik behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak egotea.
- d) Lehentasunez erabilera komunerako erabiltzea, erabilera pribatiborako baino.
- e) Lege honek edo beste lege berezi batzuek herri-administrazioei ematen dizkieten prerrogatibak arduraz erabiltzea, horien kontserbazioa eta osotasuna bermatuz.

Bestalde, komeni da legearen 92.1. artikulua kontuan hartzea, honako hau ezartzen baitu: *"Las autorizaciones se otorgarán directamente a los peticionarios que reúnan las condiciones requeridas, salvo si, por cualquier circunstancia, se encontrase limitado su número, en cuyo caso lo serán en régimen de concurrencia y si ello no fuere procedente, por no tener que valorarse condiciones especiales en los solicitantes, mediante sorteo, si otra cosa no se hubiese establecido en las condiciones por las que se rigen."*

Azkenik, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren (Toki-Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onesten duena) 77. artikulua ere aplikatu behar da, transkribatutako 92.1. artikulua eduki bera baitu.

Laburbilduz, udala behartuta dago salmenta ibiltarirako baimenak banan-banan ematera merkatariari, baldin eta dagokion azokan produktuak saltzeko prozedura publikoan alde aurretik ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Baimen horiek zuzenean eman ahal izango dira, edo, kopurua mugatuta baldin badago, eskabideak baloratuta, egoki iritzi gero, edo, bestela, zozketa bidez.

4. Baimendutako azokei buruz udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertzen hasi aurretik, azokak antolatzen dituzten subjektuei buruz hitz egin behar dugu zehatz-mehatz. Ordenantzak hainbat izen erabiltzen ditu azoka bat zer subjektuk antola dezakeen zehazteko, hala nola erakunde antolatzaile batek,





sektorea ordezkatzeko duen elkarte batek, artisauen elkarte batek, herritarrentzako doako ikuskizun edo jolas-jarduerak egiteari lotutako antolatzaile pribatu batek, auzo-elkarteek, merkatarien elkarteek eta beste pertsona eta erakunde entzutetsu batzuenek.

Udal horri zuzendutako Arartekoaren [2019R-1765-18 Ebazpenean, 2019ko ekainaren 26koan](#), irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeei txosnak jartzeko baimenak emateari buruzkoan, honako hau nabarmendu genuen:

“...behar bezala azaldu behar da zergatik eta zer xederekin mugatu den parte-hartzea, lehia irekiko araubidean, entitate- edo elkarte-mota jakin bati, egiaztatu ahal izateko neurri murriztaile hori proportzionala ote den jardunbide horrek izan beharko lituzkeen interes publikoko helburuekin. Laburbilduz, udalak parte-hartzea entitate jakin batzuei mugatzeko erabakia zentzuzkoa izan dadin, baldintzen pleguan jasota egon behar du, eta behar bezala islatu behar da kokaleku ezberdinen esleipendunak hautatzeko prozeduran, justifikatzeko entitate esleipendunek egiten dituzten jarduerari eta proiektuei erreparatuta ezarritako neurri murriztailea ona dela.”

Bestela esanda, jai-ekitaldiak antolatzea jarduera ekonomiko bat da. Hortaz, ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein eragileri lehiaketan parte hartzeko mugak jartzea justifika dezakeen arrazoi bakarra da arlo horretan diharduten eta beren balia bideak udal-interes publikoko proiektuetara eta jardueretara bideratzen dituzten entitateak sustatu eta babestu nahi izatea, aplikatzeko den araudian berariaz aurreikusitako beste laguntza-tresna batzuk erabili beharrean.”

Kasu hartan, Arartekoak eragozpenak jarri zituen espazio publikoaren esleipenak irabazi-asmorik gabeko elkartei mugatzeko salbuespen hori justifikatu gabe. Kasu honetan, adierazitakoaz gain, gaineratu behar da azokan parte hartzeko baimenak merkatariei banan-banan eman behar zaizkiela. Udalak ekitaldia antolatuko eta azoka kudeatuko duen esleipendun bat du, eta inguruabar hori ere egiaztatu egin beharko da, zerbitzuen kontratazioaren arloko erregulazioa dela-eta. Hala ere, espazio publikoa oro har irabazi-asmorik gabeko elkartei eta beste erakunde batzuei esleitzeak eta produktuen salmenta ibiltarirako postuen hautaketa, banaketa eta instalazio-baldintza zehatzak ezartzeko eskumena haien esku uzteak ez du legezko euskarririk.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak duela gutxi emandako epaia (720/2019 Apelazio Errekurtsoa, 2019ko urriaren 10ekoa, Bergarako udalerrian San Martin Azoka antolatzeari buruzkoa) aipatu beharra dago. Epaia horretan eztabaidatzen zen zuzenbidearen arabera ote zen udalerriko irabazi-asmorik gabeko elkarteak izan behar izatea taloak saltzeko txosna edo postu ibiltari bat esleitzeko. Klausula eztabaidagarriak hauxe zioen: *“El sorteo se realizará entre quienes hayan presentado solicitudes, teniendo prioridad las agrupaciones locales con fines culturales, deportivos, educativos*



o docentes, o de tipo benéfico, siempre que no hayan resultado adjudicatarias el año anterior.”

Epaiaren bosgarren oinarriak honako hau xedatzen du:

“Analizadas las bases de la convocatoria y proyectando las consideraciones expuestas al caso de autos, no cabe sino concluir que dicha convocatoria no justifica siquiera someramente, los motivos por lo que decide que la adjudicación de la txosna municipal lo sea a entidades sin ánimo de lucro del municipio, lo cual impide el acceso a dicha explotación de otros operadores económicos, como es el caso del apelante, discriminándoles y restringiendo la competencia, que no se compadece con los principios de la normativa contractual que acaba de citarse líneas arriba, disponiendo expresamente el artículo 132.1 de la LCSP que “En ningún caso podrá limitarse la participación por la forma jurídica o el ánimo de lucro en la contratación (...)”, lo que conduce a declarar que los requisitos de ser asociación sin ánimo de lucro y bergaresa a la que se supeditaba el otorgamiento del uso privativo del puesto municipal para venta de talos en la feria local, no es conforme a derecho al resultar contrarios a los principios de concurrencia competitiva, no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores y salvaguarda de la libre competencia.”

Beraz, helarazitako informaziotik ondorioztatzen da ez dela betetzen sektoreko araudia, ez eta ordenantza ere, ez dagoelako lehiarik bermatzen duenik, batetik, ekoizle interesdunen diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna, eta, bestetik, lehia askearen babesa. Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, hurrengo atalean, azaletik aztertuko dugu orain arte jarraitutako prozedura, orain arte adierazitakoa baimenen edukiarekin egiaztatzeko, espazio publikoaren udal-ordenantzaren esparruan.

5. Aztertuko dugun dokumentazioa 2017. urteari dagokionez aurkeztutako baimenei buruzkoa da (alkateari zuzendutako proposamenak), baina funtsezko elementuetan egingo ditugun oharrak 2018ko baimenei ere aplikatu dakizkieke — horiek ere aurkeztu ziren —.

5.1. Eskaeren titular diren erakundeak.

Gai horri dagokionez, aurreko atalean ere aipatu da ez dela justifikatu irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunde edo elkarteri —udalak zerrendatutakoekin bat datoz (bosgarren aurrekaria)— zuzeneko baimena eman izana. Hala ere, egiaztatu da eskaera egin duten erakunde gehienak kultura-elkarteak direla, nahiz eta auzo-elkarteren bat eta banku-fundazioren bat ere badagoen. Ez dirudi, beraz, horietako batek ere xede duenik nekazaritza-azokak antolatzearekin lotutako jarduerarik.

Udalari zuzendutako 2019ko ekainaren 26ko gomendioan adierazienez, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat izate hutsak ez du bermatzen ez gizarte-



intereseko helburuak betetzen direnik, ez baliabide guztiak behar bezala bideratzen direnik helburuak bete daitezzen, ez egindako jarduerak udalaren interes publikoko helburuarekin bat datozenik.

5.2. Eskatzailea eta harremanetarako helbidea.

Aztertutako zazpi baimenei erreparatuta, egiaztatu da horietako lautan eskatzailea edo harremanetarako pertsona bat-bera dela, eta haren helbide elektronikoa Bilboko Udalarena dela. Egia esan, udal-webgunean ageri den informazioaren arabera, pertsona horrek konfiantzazko langile (udal-talde baten aholkulari) kargua betetzen du.

Aurreko kointzidentziaz gain, bi kultura-elkartetako posta-helbideak bat datoz eskatzaile hori aholkulari gisa ageri den alderdi politiko bereko egoitza sozialekin, eta kasu horietako batean alderdi politikoaren egoitza sozial horren helbide elektronikoa ere aurkeztu da. Baimen horietako bat San Martin Azoka egiteko eskatu zen, eta, hain zuzen ere azoka horretan txosna jartzeko baimena eskatu zion kexagileak udalari 2018ko azaroaren 2an, baina adierazi zitzaion udala ez zela sustatzailea, eta jakinarazi zitzaion aipatutako elkarteari eman zitzaiola baimena azaroaren 5ean azoka antola zezan. Ildo horretan, jakinarazi zitzaion udalak sustatzaileari soilik —ez instala zitekeen postu bakoitzari— eman ziola baimena ekitaldiarekin espazio publikoa okupa zezan. Eskaeran, ekitaldian parte hartu zuten erakusketarien zerrenda jaso behar zen, baina ez zen informaziorik eman behar hautaketa egiteko moduari edo parte hartzeko deialdi publikoari buruz.

Izan ere, bere garaian, kexagileak azoka horretan parte hartu nahi zuela ikusita, udalak alderdi politiko horren egoitza sozialera bidali zuen, parte hartzeko baldintzen edo aukeren berri eman ziezaioten.

5.3. Eskatutako instalazioak eta parte-hartzaileen zerrenda.

Aurkeztu diren baimena emateko proposamenetan, eskatutako txosna-kopurua eta horien neurriak zehaztu dira. Horrez gain, azokako parte-hartzaileen zerrenda erantsi da. Zerrenda batzuetan parte-hartzailearen izena eta abizena eta instalatuko duen postu-kopurua ageri dira, baina ez da zehazten zer produktu dituen salgai; beste batzuetan, berriz, enpresa edo produktu jakin bat aipatu da, baina ez titularra; azkenik, zerrenda gehienetan, postuez gain, txosnak jarriko direla adierazi da, baina ez da zehaztu zein den horietan egin daitekeen jarduera; parte-hartzaileen izenak behin baino gehiagotan ageri dira, batez ere harremanetarako helbide elektronikoa gisa udaleko helbide bat ageri den baimenei dagozkienak.

Baimen guztietan jasota dago zerrenda sustatzaileak aurkeztu duela, eta, beraz, jo beharra dago berak egiten duela hautaketa askatasunez (ez da informaziorik eman oinarriei, hautaketa-irizpideei, deialdiari eta abarri buruz). Hortaz, jarduketa hori udal-ordenantzaren aurkakoa da, ez delako egiaztatu





publizitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta lehiaren printzipioak bermatuz egin denik saltzaileen hautaketa. Adierazi denez, udalak bermatu behar du, baimenak emateko orduan, legeak ezarritako baldintzak betetzen direla.

5.4. Betekizun orokorrak eta espezifikoak

Ebazpen-proposamenaren bigarren apartatuak adierazten du, baimena eraginkorra izango bada, betekizun orokor eta espezifikoetan adierazitako baldintza guzti-guztiak bete behar direla. Nolanahi ere, baldintzetako bakar batean ere ez da aipatzen parte-hartzaileen hautaketa udal-ordenantzaren 76. artikulua eta hurrengoak betez egin dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar denik; beste apartatu batzuetan horixe eskatzen da, ordea (poliza, osasun-memoria, eta abar).

Horrenbestez, ez da egiaztatu azoketan parte-hartzaileen hautaketari buruzko udal-ordenantza bete denik, eta, horrez gain, emandako datuek zalantza handiak sortzen dituzte, bai udalak ekitaldi horietako batzuen antolaketan izandako zeharkako parte-hartzeari dagokionez, bai irabazi-asmorik gabeko erakundeen izaerari dagokionez. Halaber, ezin da ahaztu jarduera horietako edozeinetan parte hartzen duten ekoizleek sustatzaileak ezartzen dizkien baldintzak bete behar dituztela beti, besteak beste parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezioari dagokionez. Prezio hori zerbitzuaren kostuaren (antolaketa, tasak, eta abar) parekoa izan daiteke, edo, bestela, antolatzaileak askatasunez ezar dezake egokia iruditzen zaion prezioa.

6. Amaitzeko, labur-labur bada ere, aipatu behar ditugu azoka horien antolaketa eta erakunde antolatzailea hautatzeko betebeharra, edozein delarik ere jarraitu beharreko prozedura, espazio publikoa erabiltzeko banako baimenak emateko orduan aplikatutako salmenta ibiltariari eta ondareari buruzko araudiarekin bat etorriz.

Kexa honen xede diren negozioak, hasiera batean, kontratazio publikoari buruzko arauditik kanpo geratu arren —Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 9.1. artikulua—, 4. artikulua xedatzen du legearen printzipioak aplikatuko direla sor daitezkeen zalantzak ebazteko eta hutsuneak betetzeko. Ildo horretan, SPKLren 132. artikulua honako hau dio:

“1. Kontratazio-organoek berdintasunez tratatuko dituzte lizitatzzaileak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute.

Inolaz ere ezingo da mugatu parte-hartzea forma juridikoarengatik edo kontratazioko irabazi asmoarengatik, ez bada laugarren xedapen gehigarrian jasotako erakundeentzat erreserbatutako kontratuetan.



2. Kontratazioa ez da antolatuko publizitatebaldintzak edo kasuan kasuko adjudikazioprozedurari dagozkionak saihesteko asmoarekin, ez eta lehia artifizialki murrizteko asmoarekin ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede eginez nahiz kalte eginez.

3. Kontratazio-organismoek une oro zainduko dute adjudikazio-prozedura, lehia askea babeste aldera (...)"

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaian (hirugarren gogoetan jaso da) adierazi denez, ez da zuzenbidearen arabera izapidetu beharreko kontratazio-espeditan esleipendun bat hautatzeko orduan baldintza murriztaileak ezartzea, kontuan har dadin haren forma juridikoa edo irabazi-asmoko erakundea den ala ez.

Laburbilduz, nekazaritza-azokei buruzko administrazio-jardueran, jo daiteke udal-eskumeneko hiru alderdi edo jarduera nahasten ari direla.

Alde batetik, udalak nekazaritza-azoken moduko jarduera bat susta dezake (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.34. artikulua). Hala ere, zuzenean kudeatzen ez baldin bada, hura kudeatzeko enkargua kontratatuz hartu behar da, ziurrenik onura ekonomikoa eskuratzea ekarriko duenez kostu bidezkoa delako (SPKLren 2.1. artikulua). Beraz, zerbitzu-kontratuaren modalitatearen barruan egongo litzateke, hau da, jarduera bat egin bitartean prestazioak ematea xede duen kontratuaren barruan (SPKLren 17. artikulua).

Bigarrenik, ekitaldietan parte hartzen duten eta alde aurretik zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ekoizleei esleia diezaieke udalak espazio publikoa. Hautaketa hori egiteko, ez da eragozpenik ikusten kudeaketa-zerbitzua esleitu zaion erakundeak esleipen-proposamenean parte har dezan. Proposamen hori eskatzaile bakoitzarentzat onartu beharko du udal-organo eskudunak. Parte hartzeko baldintzak behar bezala mugatu eta norgehiagoka-prozeduran aurreikusitako gainerako baldintzak bete ondoren, erakunde kudeatzaileak — balorazioa egingo da alde aurretik, ezarritako irizpideen arabera edo zozketa bidez— proposamena aurkez diezaioke udalari, egiaztagiriak erantsita. Udalak dokumentazio hori baliozkotu eta bidezkoa dena ebatzi beharko du, eta, horren ondoren, onuradun den ekoizle bakoitzari banakako baimena eman beharko dio.

Azkenik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren zioen azalpenean adierazten denez, sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat diru-laguntzen bidez bideratzen da, pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eskaera sozial eta ekonomikoei erantzuteko finantza-laguntzako neurriak ezarrita. Legearen 8. artikulua, berriz, diru-laguntzen printzipio orokorreari buruzkoa da, eta hauxe dio:

“Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2. Cuando los objetivos que se pretenden conseguir afecten al mercado, su orientación debe dirigirse a corregir fallos claramente identificados y sus efectos deben ser mínimamente distorsionadores.

3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.*
- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.*
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.”*

Horregatik, "espezietan ordaintzen" denean, hau da, erakunde jakin batzuei jarduera ekonomiko bat kudeatzeko zuzeneko baimena ematen zaienean onura bat lor dezaten (horietan guztietan ematen da baimena txosnak jartzeko), ez da bete behar araudi hori. Nolanahi ere, funtzionatzeko modu horrek legearen babesa izango balu ere —aurreko gogoetetan ez da halakorik egiaztatu—, horrek ez du bermatzen erakunde horiek lortzen dituzten onurak elkarreek edo fundazioek berezkoak dituzten helburuetarako (egiaztapena, fiskalizazioa) erabiltzen dituztenik. Hori dela eta, jakina, ezin da baloratu nola betetzen diren, espezietan ordaintzen denean, plan estrategiko batean jasotako interes publikoko helburu jakin batzuk, eta ezin da bermatu helburu horiek ez dutenik merkatua desitxuratzten.

Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak araubide desberdineko jarduketak nahasten diren errealitate horren berri ematen du apirilaren 11ko 56/2018 Epaian. Hauxe dio zehazki:

“Frente al argumento de la defensa de la Administración de que “simplemente trata de beneficiar a los vecinos en un acto que no constituye una contratación administrativa a largo plazo”, es obligado concluir que se trata de una actividad económica, no despreciable en su cuantía, pues el Ayuntamiento logra a través de ellas promocionar, sin abonar las subvenciones que de otro modo serian precisas, ciertos fines específicos y el recurrente logra por medio de su asistencia a ferias como la de autos – no solo a una, pero sí mediante su asistencia regular a las de diversas localidades de la provincia - una parte estimable de sus ingresos. Que el planteamiento municipal busque conceder una “forma de contraprestación (concesión de autorización para explotación de txosna) que permite ingresos añadidos a estas entidades” y “supone un ahorro considerable para la Administración, que de esta forma tiene que llevar a cabo menores desembolsos en forma de subvención”, en aplicación de los “principios de eficacia, estabilidad y sostenibilidad financiera que han de regir el



devenir diario de las Administraciones Locales” confirma la palmaria inadecuación a Derecho del procedimiento, los criterios, los fines e, indiciariamente, los requisitos legales para la concesión de subvenciones públicas.”

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Urtero udalerrian egiten diren nekazaritza-azoketan parte hartzen duten ekoizleei postuak esleitzeko orduan, bete dadila aurreikusitako lege-esparrua, eta, zehazki, eraginkortasunez aplika daitezela publizitate-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak.
2. Udalean egon behar duten administrazio-espeditenteek behar bezala egiazta dezatela udalerrian egiten diren azoka eta azoka txikietan salmenta ibiltariko postuak eta horiei atxikitako gainerako instalazioak zuzenbidearen arabera esleitzen direla.
3. Alda dezala indarrean dagoen espazio publikoaren ordenantzaren VI. tituluko III. kapitulua, noizbehinkako azokak egiteari buruzkoa, bereziki irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteei baimenak emanaz edo haiekin hitzarmenak sinatuz postuak zuzenean esleitzeari dagokionez.

